Jabe-gabetzea. Sarrera berri bat

Javier Encina eta Mª Ángeles Ávila

Euriak ematen didan ura
Zeruaren handia
Gauaren iluna
Baldin badaukat
Sua piztea zer den
Ulertzen badut
Izarrak ageri direnean
Bideak zabaltzen badira
Lurrera erortzen den horretatik
Bizitzerik badut
Egunsentiaren itxaropena
Sentitzen badut

Nik ez dut botererik behar
Nork agintzen du hemen, nork, nork agintzen du, nork
Jendea nola altxatzen den
Ikusteko garaia da
Nik ez dut botererik behar

Mala Rodríguez *¿Quién manda aquí?*

1995az geroztik partaidetza prozesuetan gabiltza lanean, Andaluzian eta geroago Mexikon; horrez gain, Kanarietan, Madrilen, Euskal Herrian, Katalunian, Galizian, Argentinan, Kolonbian, Perun... ari den jendea ezagutu dugu, eta eurekin solasean konturatu gara kezka bera dugula: Botereak zaildu

egiten du partaidetza prozesuetan ondo egitea/pentsatzea/sentitzea; Estatu eta Merkatutik datorren Botereak, baina baita zeregin tekniko eta politikoak garatzen dituzten hainbat pertsonaren botereak ere, eta, harrigarriki, auzo-zereginak betetzen dituzten zenbait pertsonaren botereak ere bai.

Era askotara jardun dugu Boterearen eraginari aurre egiten gure lan egiteko moduan (ilusionismo soziala[1]): egiturak malgutuz, komunitatean harreman horizontalak eta anbibalenteak sustatuz, autoestimu komunitarioa sustatuz, ikusezintasunak sortuz... Baina geure hausnarketak/ekintzak beti izan du presaren zailtasuna, prozesua blokeatuta gera ez zedin; horrek eragotzi du Boterearen eta botereen gaineko hausnarketa sakonagoa eta zehatzagoa egitea, jendearekin eta jendearengandik lan egitea erraztuko diguna. Uste dut 20 urte hauetako esperientziak lagunduko digula eginahal honetan. Jabe-gabetzearen kontzeptua eraikitzeko nondik abiatu garen ulertzeko, esan beharko genuke Sevillako probintzian (Andaluzian) zuzenean bizitu ditugun partaidetza prozesu hauek eragindako hausnarketetatik datorrela[2]: Pedrera (1995-1996; garapen lokalaren eraketa partehartzailea udal mailan), Las Cabezas de San Juan (1999-2003; aurrekontu partehartzaileak), Palomares del Río (2005-2007; Hiria Antolatzeko Plan Orokorra eta Plan Estrategikoa partaidetzaren bidez eraikitzea); Olivares (2009-2010; baztertutako auzoetan autoestimua eta autogestio komunitarioa lantzea ahozko historiak eraikiz). Gainera, beste hausnarketa bat barneratu dugu, John Holloway eta Raúl Zibechiren analisiak, esperientzia zapatista (Mexiko), eta Raúl Zibechik Boliviako El

---

1 Ikus. liburu honetan bertan «*Ilusionismo Soziala, azken muga metodologikotik haratago*» atala

2 Esperientzia hauen inguruan gehiago jakiteko, irakurri liburu honetan bertan «*Ilusionismo soziala eta jabe-gabetzea Sevillako probintzian*» atala.

Alto-n izandako esperientziak oinarri harturik. Jiutepec eta Cuernavacan (Mexiko) urteetan izandako esperientzien hausnarketak ere jaso ditugu, bertan partaidetza zuzena izan baitugu (jarraikorragoa birtualki baina aurrez aurre ere bai, hiru edo lau alditan, 2010-2014).

Kultura herrikoien gaia hasieratik egon da gure lanetan, bai maila teorikoan, artikuluen ekoizpenean eta *Cuchará' y paso atrá'* izeneko gure aldizkaria editatuz, bai partaidetza prozesuetan, ahozko historiak berreraiki ditugunean eta Pedreran (Sevillan) egindako lehen lanean. Horretan nenbilen Munduko IAP[3] Biltzarrean ponente gisa parte hartzera gonbidatu nindutenean 1997an Kolonbian, bertan ikusi nuen neure burua kultura herrikoiei buruz mintzatzen; eta Antonio Mandly izan zen *sancocho* bat bazkaltzera joatea proposatu zidana bere lagun batekin, Jesús Martín-Barberorekin, hain zuzen ere. Jesús izan zen bazkaloste luze batean bitartekaritza sozialen inguruan hizketan aritu zitzaidana; harrezkero, gure lanean garrantzi handia hartu dute bitartekaritza sozialek, baita Jesusek ere, berarekin harreman emankorra eta atsegina dugu oraindik ere. Eta une hartan bertan hasi ginen garatzen honako baieztapena: Boterearen logikak eguneroko bizitza kolonizatzeari utz diezaion, bitartekaritza sozialak ezagutzeak berebiziko garrantzia du; bitartekaritza sozialak ekiteko eta erlazionatzeko moduak dira, eta lau motatakoak izan daitezke: inposatuak, baimenduak[4], erosiak, edo kolektiboki eraikiak eta desiratuak; azken harreman-mota hauek posible diren ekintza-multzoen erakusle pribilejiatuak dira, esaterako, hainbat talde elkartzea ekintza bateratuak gauzatzeko;

3 IAP (Ikerketa-Ekintza Partehartzailea) ikerketa-metodologia bat da ikerketak eraldatzailea izan behar duela planteatzen duena eta pertsonak ikerketa objektu izatearen etikotasuna zalantzan jartzen duena.

4 Itz. oharra: «bitartekaritza baimenduak» edo «baimendutako bitartekaritzak» erabiltzea hautatu dugu «*mediaciones consentidas*» itzultzeko.

bitartekaritza desiratuek, halaber, posible egiten dituzte harreman-modu horizontalak eratuko dituzten kosmobisioak sortzeko beharrezkoak diren eraikitze eta eraiste formak[5].

Baina inposatutako bitartekaritzak, baimenduak edo erosiak dira eguneroko bizitzaren kolonizaziorako ateak zabaltzen dituztenak (Estatu eta Merkatu dominatzaileak izanik horren eragile): prozesu honetan, bizitako eta eraikitako denbora suntsitzen ari da, espazioa/denbora diada lurralde/ordutegi bihurtuz. Lurraldetze hau espazio pribatua/espazio publikoa banatuz egiten ari da, horrela, espazio komunaren suntsipena saiatzen da eta habitat pribatua inposatzen ari da habitatzearen[6] gainetik. Denbora zerbait objektiboa balitz bezala markatzen da –denbora bera denontzat–, helburuak markatzen dira espazioetan eta horrela lurralde bihurtzen dituzte, eta horren denaren ondorioz, pertsonak parte hartzaile izatetik begiratzera pasatzen ari dira: eraikitzetik ikuskizunera. Marc AUGÉk (1998:91) dioen eran, "zenbait espaziotan norbanakoa ikusle sentitzen da ikuskizunaren nolakotasunak benetan axolarik ez zaiolarik. Ematen du ikusle posizioa dela ikuskizunaren esentzia ikuslearentzat berarentzat, ikuskizuna ikusle posizioan dagoen ikuslea bera izango balitz bezala". Ez-leku hauek dira, gauzak pasatzen ikusteko jarreraz, gure geuretasun osoan barneratzen direnak; geu gidatuz, osotasun gisa definitzen gaituen identitatean harrapatuta.

Estatu menderatzaileak eragiten dituen bitartekaritzek gidatzen eta inpregnatzen gaituzte eta horrela murgilarazten gaituzte

5 Bitartekaritza sozialetan sakontzeko: Javier ENCINA, Beatriz LUQUE eta M. Ángeles ÁVILA (2009)

6 Tomás R. VILLASANTE (1998) berridatziz, «habitatzea» ulertu behar da egunerokotasunean, espazioan eta denboran elkarrekin biziz, kultura herrikoiak sortzen diren lekuetan, afektibotasunetik (sentitu), partekatzen den horretatik (egin) eta «etorkizunetik» (pentsatu); mugimenduan dagoen zerbait da, dialektikoa eta gatazkatsua.

kultura instituzionalean, Hezkuntzaren bitartez, Administrazioaren politiken bidez, Zientzia baliatuz, zenbait Komunikabide Kultural erabiliz... Merkatu menderatzaileak eragiten dituen bitartekaritzek gidatzen eta inpregnatzen gaituzte eta horrela murgilarazten gaituzte masa-kulturan, Moden bitartez, hainbat Komunikabide Masibo erabiliz, Ondasuna baliatuz. Patriarkatuak eragiten dituen bitartekaritzek gidatzen eta inpregnatzen gaituzte eta horrela murgilarazten gaituzte Familian, Hezkuntzaren, Ondasunaren eta *bio-botere*aren bidez.

Botereak (Estatu eta Merkatu menderatzaileek eta Patriarkatuak) gure mugimendua behar du, gure aurkaritza, gure jakintzak, gure sormena; ikasteko eta *conduit*-a eragiteko (gure mugimenduan hartzen baitu indarra eta zentzua): gu eramaten gaitu eta geure portaeran barneratzen da, baina gu gidatzeko ikusi egin behar gaitu, mugitu egin behar dugu, eta gu gidatze horren bitartez inpregnatzen gaitu bere portaeraz. Gidatzen gaitu gugandik ikasteko, gidatzen gaitu Kapitalismoak eragiten dizkigun ertz mingarrienak saihesteko, gidatzen gaitu Boterearen logikarentzat desiragarria den portaera barnera dezagun eta gugan botere nahia esna dadin (boterea hartuz, ahaldunduz edo botereari kontra eginez).

Boterearen aurrean, jabe-gabetzearen alde egin dugu, eremu soziala berkokatzen baitu, boterearen borroka-eremua utzi eta bizitzan zentratzen da: bizi dezagun geure bizitza kolektiboa orain! Ezer gailendu beharrik gabe, mesias baten zain egon gabe, gustuko ez dugun gizarte batean hobeto kokatzearen alde borrokarik egin gabe. Eraiki dezagun geure bizitza gaurtik eta egunez egun...

Jabe-gabetzea[7] boterea uztea baino ez da, boterea erabiltzeari uko egitea[8] (behekoenganantz eta ingurune sozial eta naturalarekin harmonian) eraikitze kolektiboa ahalbidetzeko. Gure bizitzan boterea izaten dugu bizitzaren zenbait une edo eremutan: familia harremanetan, lagunartean, lanean...; kontua da botere hori uztea, eta uzte hori banakakoa izan daiteke (ni aita/ama/seme/alaba gisa..., ni adiskide gisa, ni nagusi gisa, edo irakasle gisa, edo mediku gisa, edo funtzionario gisa, edo aktibista gisa...), kolektiboa izan daiteke (EZLNk egin zuena 2000 urtean mugimendu politiko bihurtu zenean, hau da, ejerzitoaren boterea utzita, Chiapaseko herriek euren oraina eta geroa kolektiboki eraiki zezaten: Mundu Berria). Jabe-gabetzea da boterea dugula sentitzen dugunean, botere hori erabiltzeari uko egitea eta beste inork har dezan eragoztea. Hau da, kontua ez da boterea beste norbaiti ematea (behean dagoenari), baizik eta behean dagoenaren gainean dugun botere hori uztea eta inork ez erabiltzeko beharrezkoak diren erresistentziak eta dinamizazioak martxan jartzea.

Boterea uzteak eragiten duen egoera berriaren lehen unean nahastea eta kaos sortzailea pizten da, hortik berehala horizontalitateen lehen hastapenak sortzen dira eta ikusezintasun prozesu

---

7 Itz. oh.: «*Jabe-gabetzea*»ren itzulpena proposatu dugu, literalago liratekeen «*boteregabetzea*» edo «*ahaluztea*» itzulpenen aurrean, boterea zerbaiten jabe izatearekin lotzeko (*nire* langileak, *nire* seme-alabak, *nire* gurasoak, *nire* ikasleak...), baita jabetzea kontzientzia zentzuarekin erlazionatzeko; jabetzeak baduelako bere baitan ebaluazio-ñabardura (nolakoa naizen *jabetzen naiz*) eta jabe-gabetzea, aldiz, norbanakoaren kontzientzia hartzean oinarritu ordez, eraikuntza eta autogestio kolektiboan bizi delako. Horrez gain, euskal kultura herrikoien joera linguistiko bat erabili nahi izan da, hitz-jokoen egitura erabiliz (hitzen errepikapena, «*saski-naski*» tankerako konposatuen eran), egitura erritmiko bat eratzeko, hitzak osatzeko hizkuntz arauak nolabait urratuz.

8 Itz. oh.: botereari uko egitea edo boterea (beherantz) uztea erabili dugu liburuan zehar «*hacer dejación*» euskaratzeko.

bat hasten da; horrek denak boterearen *conduit*-a eragozten du, ez baitu aurkitzen egite bat eraman ahalko duena, baizik eta elkarren artean josiak dauden sentitze, pentsatze eta egiteen magma bat, ez dirudiena inora doanik. Aurrerapenaren ukatze hori (norantzari uko egitea) eta oraina bizitzearen baieztapena (egotea, izatearen ordez) *conduit*-aren oztopo eraginkorrak direla ematen du, *conduit*-ak helmugak, protokoloak, helburuak, metodoak behar dituelako, bai gugandik ikasteko, bai gu bere norabidean eramateko.

Horizontalitate sortu berri hauek kosmobisio holistikoa berreskuratzen duten kultura herrikoien uholde berria eragiten ari dira, alderdi kulturalez gain, alderdi ekonomikoak eta sozialak barneratzen dituztenak. Kapitalismoak eragin du kultura herrikoiek integraltasuna galtzea eta horrela errazagoa izan da jendarte askotan masa-kultura gailentzea. Horizontalitate berriek, ostera, suspertu egin dituzte kultura herrikoiak, suspertze espirala, ez baitira inoiz erabat suntsituak izan. Berez, kultura herrikoiak jendearen aterpe eta gordeleku izan dira globalizazio bortitzenaren aurrean, horregatik izan da errazagoa berpiztea. Baina mende berriaren iritsierak eta ondorengo krisi ekonomikoak kosmobisio hauen erditzea bultzatu dute, bitartekaritza desiratuak sortuz eta hauek Boterea berpentsatuz, berreginez, bersentituz, gure eta gure komunitatearen eguneroko bizitzan hainbesteko indarra izan ez dezan. Bitartekaritza berri horietariko batzuk dira, konstelazioen moduan, jabe-gabetzea deritzoguna marrazten dutenak.

Mundu berri horien ezaugarrietako bat da ez dutela azalpen diskurtso orokorrak eraikitzeko beharrik. *Nola egiten da hau?* galderaren aurrean, erantzun ohikoenak honelakoak dira: *eginez!* edo *horrela egiten dira gauzak*. Normalean ez dira sistematizazioak lantzen; segur aski denbora faltagatik baino gehiago, ez

zaielako zentzurik ikusten. Transferentziak, aldiz, bai: une jakin batean zerbaitetarako lagun diezaguketen iraganaren atalak berreskuratzen dira, geure iraganekoak edo beste kolektibo batekoak, lehenago izandako beste antzeko arazo bat konpontzeko, edo aurretik egindako hutsegite bat ez errepikatzeko, edo besterik gabe, tentsio-une bat askatzeko edo barrea eragiteko, edo dagoeneko ez dagoen pertsona baten oroitzapenak berreskuratzeko.

Tradizio judu-kristaua apurtzen duten mugimendu bitalistak dira. Bizitza miresten da, ez da heriotza nahi; heriotza erdigune izatetik amaiera izatera pasatzen da, bizi izanaren ondorio baino ez izatera... bizitzea da heroikoa, ez heriotza (espazio publikoa berreskuratzea, ejerzitoa eta gerrila ez ulertzea...).

Autoerregulatzeko eta bizitzaren esparru guztietan elikatzeko joera duten mugimenduak dira: ekonomia herrikoiak eta ekonomia sozial eta solidarioak, autoikaskuntza eta autoekintza, jakintza herrikoiak berreskuratzea, ama edoskitzaileak, diru soziala...

Mugimendu hauetan, horizontalitateak[9] gune berriak sortzen ditu eta emakumeen protagonismorantz naturaltasunez zabaltzen dira (kuoten eta diskriminazio positiboaren beharrik gabe), eguneroko bizitza delako erdigunea eta horrek eragiten du gizonezkoak bigarren planora pasatzea jabe-gabetze prozesu baten bidez.

Mugimendu hauek ez dute asmorik eguneroko bizitzatik haratagoko ondorioak izateko. Efimeroak izan daitezke, eta

9 Ez da nahastu behar horizontalitatea eta asanblearismoa, azken hau tresna bat da horizontalitate horretatik abiatuta lan egiteko; beste tresna batzuk ere erabili ahal eta behar dira jendearekin lan egiteko eta beharretara egokitzeko.

beste talde batzuekin berreratu, edo bizitza osoa iraun dezakete; baina iraupena ez da balio bat, **balio bakarra bizitza da eta nola balio digun mugimenduak *hobeto bizitzeko***, ez nahastu hau inolaz ere *gehiago kontsumitzearekin*. Horregatik, tradizio judukristaua berriz hautsiz, enplegua ez da ardatz nagusi bat, hainbatetan behar dugun –eta noizik eta behin behar ez dugun– tresna bat baino ez da...

Mugimendu hauetan Egia maiuskulaz ez da existitzen; baloratzen dena da gauzak zuzenean eta zintzoki esatea («*decir las cosas por derecho*»)[10] eta oker zeundela onartzeko ausardia izatea, gaizki eginak ikaskuntza kolektiboaren prozesuan barneratzen direlako, asmatzeek duten pisu berberarekin. Horregatik dute hain balio txikia munduaren azalpenaren teoria orokorrek (ez direlako *zuzenak eta zintzoak*: orokorrean eta betiko baliozkotzen dira; eta ez dute *ausardirik*: erroreak eta hutsegiteak arauaren salbuespen gisa interpretatzen dira).

Gure ekintza ez da zentratu behar boterea lortzean (berdin dio berpizkuntza bultzatzen duen abanguardia izan, nahiz alderdi politiko bat sortu eta hauteskundeak irabazten dituen abanguardia izan), ezta ahalduntzean ere (azken batean, ahalduntzea boterea hartzea da, normalean logika azpiratzaileen testuinguruan); botere-uztearen autogestio kolektiboan baizik, boterea deuseztatzearen ortzemuga utopikoan. Autogestioak begirada aldatzen digu, boterea hartzetik pentsatu/sentitu/egin ahal izatera, eta horrek jakintzak, trebetasunak eta nahiak inplikatzen ditu. Gainera, beti fluxu sozialean jatorri duen dimentsio kolektiboari egiten dio erreferentzia, besteekin eta besteen egite/pentsatze/sentitzeetan.

---

10 Itz.oh.: «*decir las cosas por derecho*» herri-esaera andaluziarrak adierazi nahi du gauzak ezer ezkutatu gabe, maltzurkeriarik gabe eta aurpegia emanez esatea, gauzak esateak eduki ditzakeen ondorioei aurre eginez.

Boterea uztearen autogestio kolektiboa eraikitzen joateko (jabegabetzea), lehenik erresistentzia behar da («EZ» esatea, botere aurkakotasuna sortzeko; John HOLLOWAY, 2001), bai oposizio/kontzientzia mailan, bai elkarreragin sortzailean. Bigarrenik, haustura behar da berrikuntzara zabaltzeko; proposamen berriak sor daitezen identitateari uko egin eta identifikazioak sustatuko dira (boterea sakabanatuz, Raúl ZIBECHI, 2007). Eta hirugarrenik, partaidetzarako bideak zabaldu behar dira prozesuan eraiki behar diren aurka-egite/elkarreragin/berrikuntzei forma emateko, egiten diren askotariko ekintzen bidez.

Hiru paradigma hauek (botere-aurkakotasuna, boterearen sakabanatzea eta jabe-gabetzea) gizartea boterea hartu gabe, ahaldundu gabe, kontraboterea eraiki gabe eraldatu nahi duten mugimenduetatik eta mugimenduekin sentituz/eginez/pentsatuz sortu dira. Paradigma hauek bat datoz mugimendu hauek hiru funtsezko gako konpartitzen dituztela baieztatzean:

1. Emakumeek protagonismoa hartzen dute partaidetza forma berri hauetan.
2. Mundu Berria gaurtik bertatik bizi behar da; karakola zapatistek (Mexiko), El Alto-ko Auzo Batzarrek (Bolivia) eta jornalari andaluziarren mugimenduak (espainiar estatua) planteatzen duten eran.
3. Mundu Berria gaurtik bertatik bizitzeko, geure espazio eta denbora propioak markatzen ditugu eta ikusezin bihurtzen gara Estatuko Boterearen eta Merkatuaren aurrean.

Michel FOUCAULTek (1992) atea zabaldu zuen boterearen mikrofisika planteatu zuenean: *Boterea bizi gareneko espazio eta lurralde guztietan azaltzen da, eta batzuetan Boterearen eroatearen preso gara eta beste batzuetan geuk eroaten ditugu beste per-*

tsona batzuk, geure boterea erabiliz; baina ez zen ausartu atea zeharkatzera. Pertsona gehientsuenok boterea dugu une jakin batzuetan: gure familian, gure lagun-taldean, gure laneko atal jakinetan, etab...; eta egoera horietan utzi behar dugu boterea behean dauden pertsonenganantz (ingurune sozial eta naturalarekin harmonian), jabe-gabetuz, botere hori erabiltzeari uko eginez, kolektiboki eraikitzeko aukera eskaintzeko. Egia da ondorioak, emaitzak ez direla perfektuak izango, baina partekatuagoak, hezitzaileagoak, dibergenteagoak, prozesualagoak izanik, gehiago lagunduko digute zentzu eta norabide guztietan.

Areago, Michel FOUCAULTek (1988:3-4) boterea ulertzeko eta alternatibak lantzeko funtsezko gakoak eman dizkigu: "Boterea erabiltzearen oinarria *portaerak gidatzea* eta probabilitatea prestatzea da. Azken batean, boterea ez dago horrenbeste bi aurkariren aurrez aurrekoaren ordenan, edo batak bestearen aurrean duen konpromisoan, eta bai *gobernuaren* ordenan. *Gobernu* hitzak XVII. mendean zuen esanahi zabala hartu behar da; ez baitzion erreferentzia egiten soilik egitura politikoari eta Estatuen administrazioari, horrekin batera zehazten zuen nola zuzendu pertsona eta taldeen portaera: haurren gobernua, arimena, komunitateena, familiena, gaixoena. Ez ziren soilik politikoki edo ekonomikoki eratutako forma legitimoak; hobeto edo gutxiago pentsatu eta kalkulatutako ekintza-erak ere baziren, beti beste pertsona batzuen ekintzen posibilitateen gainean eragiteko. Zentzu honetan, gobernatzea beste batzuen ekintza eremu ebentuala egituratzea da. Hortaz, boterearen harremanmodu propioa ez da bilatu behar bortizkerian edo borrokan, ezta kontratuan edo lotura boluntarioan ere (era hauek gehienez ere tresnak dira); baizik eta ekintza-modu berezi horretan, ez belikoa, ez juridikoa, gobernuan, alegia.

Boterea erabiltzea besteen ekintzen gainean eragiteko ekintza-era bat bezala definitzen denean, gizaki batzuk beste batzuen gainean *gobernatzean* –gobernatzearen zentzu zabal horretan– elementu garrantzitsu bat erantsi behar da beti: askatasuna. Boterea soilik *gizaki libreen* gainean eragiten da eta *libre* diren bitartean. Horrela, ulertuko dugu gizakiak banakakoak edo kolektiboak izan daitezkeela, posibilitate-eremu bat dutenak, askotariko portaerak, erantzunak eta jokamoldeak egiteko aukera ematen duen posibilitate-eremu bat.

Gizakiak erabaki dezakeena saturatuta dagoenean, ez da botere-harremanik existitzen; esklabutza ez da botere-harreman bat gizakia kateatuta dagoenean (kasu honetan, hertsadura edo koertzio harreman fisikoa dago soilik). [Botere-harremanak soilik existitzen dira] gizakia bere kasa desplazatu daitekeenean eta azken batean, ihes egin dezakeenean. Beraz, ez dago botere eta askatasunaren arteko aurkaritzarik, eta ez dute bazterketa-harremanik ere (ez da pentsatu behar «boterea erabiltzen denean, askatasuna desagertzen dela»); aitzitik, askoz joko konplexuagoa da: joko horretan, askatasuna boterearen existentziaren baldintza gisa agertzen da benetan (aldez aurreko baldintza gisa, beharrezkoa baita askatasuna existitzea boterea erabiltzeko; eta askatasunaren etengabeko laguntza ere bai, beragan eragiten duen boterea erabat desagerraraziko balitz, boterea erabat desagertuko litzateke eta ordezko bat bilatu beharko luke bortizkeriaren hertsaduran zuzenean). Baina aldi berean, askatasunak boterea erabiltzeari aurre egin behar dio, bestela guztiz determinatzeko joera baitu".

Horrela, Botereari zuzen-zuzenean aurre egiteko erabiltzen den askatasunak, edo kontsentsua eragiten duenak, *conduit*-a elikatzen du eta Boterearen logika berberetan bukatuko luke; horretara eramaten gaitu botere-aurkaritzak eta ahalduntzeak. Ondo-

ren azaltzen ditugu horren bi garapen, gure baieztapenen inguruan irizpide propioa sortzeko.

Toni NEGRIk (2001:83) planteatzen duen bezala: "Kontrabotereaz orokorrean hitz egiten denean, benetan hiru gauzari buruz hitz egiten ari da: botere zaharraren aurkako erresistentzia, altxamendua, eta botere berri bat eratzeko ahalmena. Erresistentzia, altxamendua eta botere eratzailea kontrabotere-aren esentzia bakarraren irudi hirukoiztarraren adierazpen dira". Agerikoa da Botereak inpregnatzen duela proposamen hau; horren adibide argiena da globalizazioaren aurkako mugimendua eta mugimendu honek erakunde multinazionalen aurrean egindako kontraagenda: mugimenduak borroka globala erakutsi du baina borroka deslokalizatuaren bidea markatu du eta ez da baliagarria izan sare horizontal supralokalak sortzeko mugimendua behetik elikatua izan dadin.

Ahalduntzea, bestalde, honela definituko genuke: "Emakumeek eta baztertutako beste talde batzuek euren boterea areagotzeko estrategia bat da, hau da, baliabide material eta sinbolikoak erabiltzeko eta kontrolatzeko sarbidea izatea, eragin handiagoa izatea eta aldaketa sozialean parte hartzea. Prozesu bat du bere baitan: zapaldutako pertsonek euren eskubide, gaitasun eta interesez jabetzea eta beste pertsona batzuen interesekin nola erlazionatzen diren lantzea, erabakietan posizio sendoagoetatik har dezaten parte eta erabakietan eragiteko aukera izan dezaten" Clara MURGUIALDAY, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO eta Marlen EIZAGUIRRE (2000, orrialdea zehaztu gabe).

Esan beharra dago ahalduntzeak eta kontrabotereak, «kontsentsuan oinarritzen den askatasunaren» bidez, *conduit*-aren bidea prestatzen dutela eta horregatik ez dugu beste aukerarik izan gure arreta *disentsuaren askatasunean* jarri eta kosmobisio hau

identifikatu eta forma ematea baino (mundua sentitu/egin/pentsatzeko erak), azkenean horri deitu diogu «jabe-gabetzea» (edo «*desempoderamiento*»).

Jabe-gabetzea ulertzeko, zortzi zutabetan oinarrituta ikusi beharko genuke[11]; zutabe horiek orekan egon behar dute, nahiz eta oreka ezegonkorra izan prozesuan zehar, nahiz eta uneoro bat nagusitu daitekeen, zutabeak prozesu osoaren ikuspegiaz orekatu beharko dira...

1) Zaintzak

Zaintzak praktika-multzo bat dira, talde edo mugimenduaren beharrei erantzuteko asebetetzaileak identifikatu eta elkarrekin eraikitzea errazten dutenak.

Zaintzak, konfiantzarekin batera, Botereak gehien arbuiatzen duen jabe-gabetzearen zutabea da; izan ere, gu eramateko eta geuk ere botereak eraman gaitzan uzteko, interes eza eta axolagabekeria beharrezkoak dira, gainerako pertsonekin izan dezakegun konpromiso afektiboa apurtzeko.

"Interes ezari eta axolagabekeriari kontra egiten dio zaintzak. Zaintza ez da ekintza huts bat, jarrera bat da; arreta, ardura, ahalegin une bat baino gehiago, ardura eta arreta jarrera izatea adierazten du, hurkoarekiko arduratzea eta afektiboki konpromisoa hartzea.

Jarrera iturri bat da, funtsean dugun gogoa adierazten duten ekintza asko eragiten ditu. Esate baterako, «gure etxea zaintzen dugula» diogunean, ulertzen da ekintza ugariri buruz ari garela: etxean bizi diren pertsonez arduratzea, eurengan arreta jarriz, bizigaiak hornituz, eta pertsona horien ongizateaz interesatzea.

---

11 Zutabe hauek liburuxka honeta daude garatuak: Javier ENCINA eta M. Ángeles ÁVILA (2014).

Gela bakoitzak giro atsegina izan dezan kezkatzen gara, egongelak, sukaldeak, logelak. Bizilagunekin adiskidetza-harremanak eratzen ditugu, apopilo datorren jendea berotasunez hartzen dugu. Etxea leku goxoa izan dadin gogoz ahalegintzen gara, eta horregatik, faltan sentitzen dugu bertatik goazenean eta pozez itzultzen gara bertara. Etxearen, bere lurren, lorategiaren egoera fisikoaren gaineko maraztasun jarrera elikatzen dugu. Katuaz eta txakurraz arduratzen gara, arrainez, eta gure zuhaitzetan bizi diren txoriez. Hori dena dago etxearen zaintza jarreraren barruan: zaintza materiala, pertsonala, soziala, ekologikoa eta espirituala" Leonardo BOFF (2002:29).

Zaintzak lantzeko, honako testuinguru eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: interesik eza eta axolagabekeria/zaintza aurkaritza; beharrak eta asebetetzeko erak: asebetetzaileak; pobrezia-erak; emakume zein gizonek duten femeninoak duen balioa nabarmentzea; zaintza integrala ingurune sozial eta naturalean ulertuta eta kontsumoarekin aurkaritzan.

2) Askatasuna

Askatasuna kolektiboki eraikitzeko ados egon beharrik gabe, kontsentsuak eskatzen duen sinplifikaziora iritsi gabe. Disentsua jabe-gabetzearen ariketa bikaina da, denei ematen baitie askatasuna euren modura parte har dezaten, eta horrela, besteak konbentzitzen ohituak daudenek boterea erabiltzeari utzi behar diote. Ez da beharrezkoa jende guztia ados egotea gauza guztietan, kontsentsuek ez lukete bizitzaren aniztasuna eta konplexutasuna blokeatu beharko, eraikitze kolektiboa nahitaez disentsuan oinarrituta egon behar da, horrela elkarrengandik ikasiz.

Mundua modu ikustezinean eraldatzen ari diren mugimenduen askatasuna ez da adostasunak eragiten dituen askatasuna, disentsuaren askatasuna baizik (eramana sentitzearen izua eta depre-

sioa apurtzen duena). Ikusezin bihurtu behar dugu, printzipio etiko bihurtutako elkar ulertzean oinarritzen den disentsuaren askatasuna zabaldu; dibertsitate soziala eta naturala da mundu hau eraldatzeko beharrezkoa den aberaste kolektiboa errazten duena, eta horrela, nahi dugun Mundu Berri hori gaurtik bertatik hasiko gara bizitzen... Pertsonekin pentsatzeak/sentitzeak/egiteak ematen digun askatasuna, jabetza pribatuaren gainetik.

Bio-boterearen aroan bizi gara, eta saiatzen da gure gorputzak, gure sexualitatea, gure osasuna, gure ingurune sozial eta naturalarekin dugun harremana inpregnatzen, alegia, funtsean gure bizitza inpregnatzen. Franco BERARDI «Bifo»ren hitzetan (2003:32): "Askatasunari norberaren eta besteren gorputzaz gozatzeko denbora lapurtzen zaionean, ingurune naturalaz eta hiri inguruneaz gozatzeko aukera suntsitzen denean, gainerako gizakiak lehiakideak, etsaiak edo aliatu ez oso fidagarriak direnean, askatasuna basamortu zorigaitzeko bihurtzen da. Dagoeneko ez da neurosia, panikoa da burguesiaren ondorengo gizartearen gaitz nagusia, zeinetan desira gero eta modu obsesiboagoan bilakatzen den enpresa ekonomiko eta lehi. Eta panikoa depresio bilakatzen da desiratzen den objektua agerian geratu bezain laster, ez baita zentzu eta sentsualitaterik gabeko mamu bat baizik. Metropoli postindustrialaren sufrimendua, miseria existentziala, bakardadea, tristura amaigabea, burunahasteak. Horixe da kapitalaren ekonomia politikoaren kritika gaur egun arduratzen duen argumentua".

Askatasuna lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: jabetza pribatua; bio-boterea; kontsentsu/disentsu dualtasuna, mundu berria askatzea; komunaren gaia; Ikuskizuna eta Boterea; izatea *versus* eraikitze kolektiboa; egotea eta etikaren ulermena.

3) Eraikitze Kolektiboa

Ez gara izaki isolatuak, besteekin harremanetan bizi gara eta etengabe ari gara gure egoteko era eta gure ideiak aldatzen, edo ideia berriak eraikitzen ditugu harremanetan gaudelako etengabe.

Kolektiboki eraikitzeko ezinbestekoak dira, hein berean, pentsatzetik, sentitzetik eta egitetik eratortzen diren jarduerak, eta ezinbestekoak dira baina aldez aurretik zehaztu gabe zein den lehena eta zein datorren ondoren, egoerak erakutsiko digu (munduaren esperientziaren bitartekaritzak, alegia) nola ari den jarduera bakoitza ateratzen, sortzen. Jarduera guztiak dira garrantzitsuak, maila berean, denak elkartuz sortzen baita eraikitze kolektiboa: jendearekin eguneroko espazio eta denboretan egitea/sentitzea/pentsatzea ahalbidetzen dute, jarduera guztiek batera.

Gutasunaren aldarrikapena da kontsumo gizarteak ezabatu nahi izan duena sinplifikazioaren, manipulazioaren eta indibidualizazioaren bitartez, banakoak masa-kulturarekin identifika daitezen bilatuz, kolektiboki eraikitako gutasunaren ordez, *ni sozializatu* bat eratuz (familia katalizatzaile gisa erabilita), hau da, banako bat berdingabea sentitzen dena eta, aldi berean –kontsumoaren bitartez– sozialki *baztertugabeen artean* identifikatzen dena. Gutasun hori ezabatzearren utzi du teknokraziak, hain zuzen ere, diskurtso ideologikoa, eta horregatik hartu du banakoaren askatasuna hitz ematen duen ideal zientifiko-teknikoaren aldarria; masa-kulturak ere babesten du ideal hau, eguneroko bizitzaren ikuspegi desestrukturatu eta bertikala hedatuz. Horren aurrez aurre, eguneroko bizitzak bere gizarte-kultibo propioen bitartez transzenditzen duenean, modu horizontalean, kultura herrikoiekin topatzen gara eta beren eraikitze anbibalente, dezentratu eta alternatiboekin.

Ezin da helburuez *a priori* hitz egin kolektiboki eraiki nahi badugu, ze jendearekin hitz egin aurretik dagoeneko diseinatuta baldin badugu zer lortu behar den prozesutik, orduan jendea gure helburu aprioristikoak lortzeko aitzakia hutsa litzateke. "Ezin da berriaren etorrera aurrez ikusi, bestela ez litzateke berria izango. Ezin da aurrez jakin sorkuntza baten etorrera, orduan ez bailegoke sorkuntzarik" Edgar MORIN (2001:97-98).

Eraikitze kolektiboa lantzeko, ondorengo kontzeptuak eta bizipenak hartu behar ditugu kontuan: hezkuntza bankarioa *vs.* hezkuntza kritiko-dialogikoa; kontsumoaren gizartea; esperientziaren bitartekaritza; gu-aren deia; partekatzea eta ez direla existitzen *a priori*ak.

4) Konfiantza

Konfiantza pentsatu, sentitu eta egitearena da eta erabaki bat da: irekitasuna izatea kolektiboki eraikitzen hasteko. Konfiantza ikastea erraztuko digun irekitasun horren araberakoa da, bestearen beharra izatea posible egingo duena, lehiakortasunera bultzatzen gaituen gizartearen aurrean.

Konfiantza, zaintzekin batera, Botereak gehien arbuiatzen duen jabe-gabetzearen zutabea da. Pentsa zeinen garrantzitsua den Boterearentzat, Segurtasunagatik ordeztu nahi izateko, trileroen jokoen antzera, gu Estatuaren autoritatean eta Merkatuaren kontsumoan harrapatzeko. Besteengan konfiantza badugu, gure boterea besteengan uzten dugu. Hau gure lanpostuan gerta dakiguke, gure bikotekidearekin, gure seme-alabekin... Konfiantzak eragiten du gure harremanak bertikalak izateari utzi eta disentsurantz eta eraikitze kolektiboetarantz irekitzea. Konfian-

tzak bizikidetza-gizarterantz[12] zabaltzen du... Konfiantzak antsietatea murriztu eta sormena sustatzen du.

Konfiantza alogikoa da, kausalitate lineala apurtzen du eta ondorioz, *conduit*-a oztopatzen du. Eguneroko bizitzaren etika mota bati ere lotua dago, aurrez aurreko harremanen garrantzian oinarritzen dena... Konfiantza taldearen baitan dago, kidetza sentsazioa indartzen du eta laguntzen du ulertzen nola autoelikatzen diren mugimendu hauek (gizartea aldatzeko ikustezin bihurtzen direnak). Eta horrelaxe planteatzen du Edgar MORINek ere (2011:283): "Baina eraldaketa hasita dago, geu konturatu ere egin gabe. Milioika ekimen daude munduko leku guztietan loratzen ari direnak. Egia da askotan ez direla aintzat hartzen, baina ekimenetako bakoitzak, bere horretan, konfiantza eta kontzientzia ematen du".

Konfiantza lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: rolen segurtasuna apurtzea: Gizona, Emakumea eta Haurra; antsietatea eta ziurgabetasuna murrizten du; harremana *versus* zeregina; sormena sustatzea; elkar ulertzea; bizikidetza; sentitu/pentsatu/egin ez banantzea; sentitze, egite eta pentsatzeen transferentzia.

5) Elkarren beharra eta autonomia

Elkarren beharra eta autonomia normalean aurkari gisa agertzen diren terminoak dira, baina jabe-gabetze prozesuetan ezinbestez elkartzen dira. Gure harreman guztiak elkarren beharrean oinarritzen dira eta aldi berean, besteekin partekatzen dugun autonomiarantz garamatzate, ze harreman horiei esker lortzen

12 Bizikidetza-gizartearen inguruan sakontzeko, ikusi liburu honetan bertan «*Bizikidetza, heziketa eta teknologia*» atala, edota Ivan ILLICHen «*La convivencialidad*» artikulua gure liburuxka honetan: «Convivencialidad, Tecnología y Desempoderamiento» http://bit.ly/2nsNnRJ

dugu egunero-egunero bizitzea. Autonomia horrek konfiantza sustatzen du eta ez genuke lortuko autodependentzian oinarrituko bagina.

Elkarren beharra iraganarekiko izan daiteke –errepikapen sortzailearen bidez esaterako– edo orainarekiko; eta horrela, adibidez, konfiantzaren bitartez beste talde batekin eraiki dezakegu kolektiboki. Elkarren beharraren bidea da laguntzarik behar ez izatera eta autonomiara garamatzana.

HEGELen iritziz (1993), elkarren behar hori gabe subjektuak ezin du norberekoikeria apurtu; gaur egungo ikuspegitik irakurrita, esan genezake ezin duela Ikuskizunaren Gizartearekin duen lotura apurtu. Elkarren beharra harreman horizontaletan oinarritu behar da: inork ez die ezer inposatu behar besteei, dena eztabaidatzen da, iritzi guztiak dira baliozkoak, eta egin beharreko lanak elkarren artean trukatuz, errazagoa da normalean, lotsak edo aurreiritziek eraginda edo, hitz egiten ez duten pertsonek muga horiek apurtzea, edota «lider naturaltzat» jotzen diren horiek euren rolaren inguruan hausnar dezaten eta besteen zereginei ere garrantzia ematea. Horrela agertzen dira lidergo situazionalak, jabe-gabetzearen bidez sustatzen direnak (zenbait lider denetarako Lidertzat jotzeak dakarren esklerotizazioari aurre eginez). Autonomia interdependente honetan, denok gara liderrak eguneroko espazio eta denbora jakinetan, inoiz ez denetan, ze hala balitz, egunerokotasuna suntsituko genuke (egunerokotasun guztiak lidergo bakarraren ikuskizun bihurtuko genituzke). Lidergo situazionalak atzematea eta animatzea prozesuan zeregin guztiek duten garrantzia onartzea da: kulturak, otorduak prestatzeak, ordezkaritza politikoak, komunikazioak... Ez dago bigarren mailako lanik. Horrek esan nahi du bizitza guztiak errespetatzea eta krisi egoeretara irekiak

egotea, krisi hauek sormenerako une gisa interpretatzen direlarik eta ez tragedia modura.

Horizontaltasunik gabe, elkarren beharra mendetasun bihurtzen da eta, ondorioz, *conduit*-aren aldeko beste elementu bat da.

Zutabe hau, elkarren beharra eta autonomia, **zero une batez** ernaltzen da, gure taldean ordurako kolektiboki zerbait eraiki denean; **lehen unean** jakintzak eskaintzen dira eta hortik transferentziak eta egoeraren araberako lidergoak sortzen dira. **Bigarren unean** taldeen artean eraikitzen da kolektiboki. **Hirugarren unean,** alde batetik elkarren arteko beharra indartzen da eta bestetik, behar hori desegiten doa autonomia sortzearekin batera. Talde horretan edo taldeen artean dauden dinamiken arabera, **laugarren unean** garrantzitsuagoa izango da elkarren arteko beharra eraikitzen segitzea, edo gauza berriak sortzea autonomiatik abiatuta (kurubil sortzaile horretan elkarren arteko behar berriak sortuz beste talde batzuekin edo talde berberekin espazio eta denbora desberdinetan).

Elkarren arteko beharra eta autonomia lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: elkarren arteko beharra *vs.* norberekoikeria; errepikapen sortzailea; harreman horizontalak; egoeraren araberako lidergoak; egunerokotasuna eta ziurtasuna-ziurgabetasuna.

6) Alaitasuna[13]

Ze ederki egongo ginatekeen zoriontasunean pentsatu beharko ez balitz! Aldous Huxley (1932) «Un mundo feliz».

---

13 Itz. oh.: zalantza izan dugu «*alegría*» hitza euskaratzeko. Hasieran «bizipoza» hautatu genuen, baina gero hitza erabiliz estatikoa iruditu zitzaigun eta «zorion» hitzetik gertukoa, «alai» egoteak hobeto islatzen du «*alegría*» hitzaren bat-batekotasuna.

Alaitasuna erraz partekatzen den emozioa da, kutsatu egiten da. Sentitze/pentsatze/egite egoera bat da, hunkitzen gaituena eta irekitasun une bat sortzen duena, gizartea eraldatzeko aukera bat eragiten duelarik. Zentzumenak pizten ditu eta ulerkortasuna, konpartitzea eta eraikitze kolektiboa errazten du. Arau sozialetatik edo arau alternatiboetatik askatzen gaitu eta ondorioz, *conduit*-etik, eta horrela errazten du agertoki berriak sortzea, konfiantzazkoak, jolas eta esperimentaziokoak, arauetara makurtzen ez direnak. Alaitasunak irekitzeko irekitzen du, itxiturak irekitzen ditu, disentsuak ezagutzeko eta euretatik abiatuta eraiki ahal izateko.

Franco BERARDI «Bifo» (2003:29): "Euforia olatu batek zeharkatu ditu merkatuak azken urteotan. Merkatuetatik komunikabideetara zabaldu da eta hauetatik, Mendebaldeko imajinario soziala indarrez hartu du. Kapitalaren hirugarren aroak, burdinaren eta lurrunaren aro klasikoaren eta fordismoaren eta muntaketa-katearen aro modernoaren ostean etorri denak, infosferan du hedapen-lurraldea, bertan zirkulatzen dute zeinu-merkantziek, adimen kolektiboa zeharkatzen duten fluxu birtualek.

Zoriontasun promesa dabil masa-kulturan, publizitatean eta ideologia ekonomikoan bertan. Diskurtso arruntean, zoriontasuna ez da hautazko zerbait, derrigorrezkoa da, *must* bat; ekoiztu, erosi eta kontsumitzen dugun merkantziaren funtsezko balioa da. Horixe da *new economy* filosofia, publizitarearen diskurtso nonahikoak garraiatzen duena, hainbat eraginkorragoa zenbat eta ezkutuagoa.

Hala ere, eguneroko bizitzaren errealitatea ikusteko adorea badugu, egunero topatzen ditugun benetako pertsonen ahotsa entzutea lortzen badugu, erraz konturatuko gara semiokapitalis-

moa, zeinuen ekoizpenaren dinamikan oinarritzen den sistema ekonomikoa, zorigaitz fabrika bat dela".

Gure ustez, Estatu eta Merkatu menderatzaileek Zoriontasunaren promesa erabiliz eragiten dute zorigaitz deitu diogun izularritasun formako frustrazioa. Alaitasunak soilik apur dezake zorion-zorigaitz sorgin kurubila, *conduit*-era arrastaka garamatzan amarrua.

Alaitasunaren erakusle nabarmenena barreak dira, *izatea* itxuragabetzen dute eta osorik *egon*arazten gaituzte, une jakin batean identitatetik identifikazioetara pasatzen laguntzen digute, zentzumen fisikoak eta afektibitatearenak erabiliz eta jariatuz, hurbiltasuna, aukera... Barrearen (alaitasun herrikoiaren) indartzaile hauek identifikatu ditugu: jan-edana, maitasuna-sexualitatea, erakunde aurkako bortizkeria-berdinen arteko gizartea.

Alaitasuna lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: zoriontasuna *versus* alaitasuna; antolaketa herrikoia sustatzea; barrea eta bere indartzaileak (jan-edana, maitasuna-sexualitatea eta erakunde aurkako bortizkeria).

7) Desazkundea

Hazkuntza ekonomikoak ez du gizarte-kohesioa sortzen –edo ez du sortzen nahitaez–, ingurumenari erasoak eragiten dizkio, kasu askotan itzulezinak, baliabide urriak agorrarazten ditu eta ondorioz, ez dira datozen belaunaldientzat eskuragarri egongo; hitz batez, bizimodu esklabu bat finkatzea ahalbidetzen du, pentsarazten diguna zoriontsuagoak izango garela zenbat eta ordu gehiagotan lan egin, zenbat eta diru gehiago irabazi, eta, batez ere, zenbat eta ondasun gehiago kontsumitzea lortu. Carlos TAIBO (2009:16).

Jabe-gabetzea ez da boterea erabiltzeari uko egitea soilik, ez baitu ikuspegi gizatiarrean soilik fokalizatzen; jabe-gabetzeak kontuan izan behar du nolako harremanak ezartzen diren ingurune naturalarekin eta gainerako ingurune sozialekin. Horretarako, mundu-ikuskera hauek apurtu behar ditugu: Aurrerapena, Hazkundea, Kontsumismoa, Zoriontasuna. Gauzak trukatu, partekatu eta egitearen poza sentitu behar dugu, prozesu gisa, eraikitze kolektibo gisa biziz, une bakoitzean sortzen diren beharrak asebetetzen dituzten gauzak aportatuz, bai banaka, bai taldeka, bai komunitatean, bai planetaren ikuspegitik...; gure ingurune sozial eta naturalarekin harreman dialektikoan, orekarantz joz, baliabide komun eta naturalekiko jarrera predatzailea bazter batean utzita...

Estatu eta Merkatu menderatzaileek modu hauek oztopatzen dituzte, komuna dena bereganatuz (publiko edota pribatu bihurtuz) eta ingurune naturala (Natura bihurtuz) eta ingurune soziala (Merkatu edota Estatu bihurtuz) urrutiratuz, kasuan kasuko logikak aplikatu ahal izateko.

Geure esperientziatik abiatuta, honela definituko genuke:

- **Balioak berrikustea** partekatzearen etika berri batetik, inperfektu eta amaigabe sentitzetik, beste pertsona batzuekin egotea bera baliotsua dela ulertuta.
- **Ekoizpenak eta giza-harremanak balio aldaketara egokitzea**, ekonomia herrikoien, ekonomia sozial eta solidarioen balioa nabarmenduz, euren ingurune sozial eta naturalekin orekan, kolektiboki eraikitzeari balioa emanez, giza-harreman horizontal eta anbibalenteak sustatuz.
- **Aberastasuna eta ondare naturala erabiltzeko moduak banatu**, lekuan lekukoa eta komunitarioa oinarri duten bizimoduak sortuz, publiko (Estatua)/pribatu (Merkatua)

dualitatea apurtuko dutenak, itxi gabe irekiz komunerantz, gure ingurune sozial eta naturalaren ondare den horretarantz.

- **Ekoizpenaren eta kontsumoaren inpaktua murriztu**, beharrak eta asebetetzaileak desberdinduz eta beharrak asebetetzeko moduak kolektiboki eraikiz, gizakiaren eta naturaren eskalan.
- **Berrerabili eta bertziklatu**, bai objektuak, gure kultura materiala aberasteko, bai pentsamenduak eta egiteak, gure kultura orokorra eta gure trebetasun sozialak aberastuz, gure ingurune sozial eta naturalarekiko sentimendu berriak sortuz.

Desazkundea lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: desazkundea *versus* Aurrerapena, Hazkundea, Kontsumismoa, Zoriontasuna. Baliabide komun eta naturalekiko jarrera predatzailea bertan behera utzi; Elkarrekikotasuna, berbanaketa, plangintza eta autarkia sustatzen du eta publizitateari, krediturari eta iraungitzeari aurre egiten dio.

8) Itxaropena

Itxaropena da ibiltzea noraez hutsa ez izatea eragiten duena. Paul RICOEUR (1968:129).

Simulakroek gure itxaropena askatzen dute, eta beste batzuenarekin bateratzen denean, ezinezkoak irudikatzeko moduan jartzen gaituzte; eta ilusionismoaren keinuak sormenaren, aukeraren eta sentsibilitatearen zentzumenek bat egiten dutenean sortzen dira, ezinezkoaren eta posible denaren arteko harresiak apurtuz, irudikatutakoaren eta sentitutakoaren/egindakoaren/pentsatutakoaren arteko mugak gaindituz, eta horrela laguntzen digute eguneroko bizitzan ezinezkoak bizi ditzagun.

Gabriela SIERRAren arabera (2010:7): "Horrela ikusita, egunerokotasunaren itxaropena norberaren mundua arakatzeko

aukera bat izateaz gain, norberaren sentimenduak ezagutzen laguntzen du eta horrela konturatzen gara nolako eragina duten gure ekintzek geure buruarengan eta geure komunitatean.

Nolako etorkizuna nahi nuke Lucíarentzat? Nolako bizitza nahi nuke Gabi haurtxoarentzat? Zein hiri eraikitzeko konpromisoa hartzen dut nire jakintzatik eta nire desiotik abiatuta? Zer nahi nuke neure ikasleentzat eta nola konprometitzen naiz nahi hori betetzera?

Ezagutzen dugun mundutik itxaropenerantz jotzeak animatzen gaitu egunerokotasun ezagunak biltzen gaituen lasaitasun esfera utzi eta desirak orienta gaitzan, aukera desberdinetarantz askatasunez zabalduz, amets egitera ausartuz. Horrela bai, horrelako itxaropena gure ohiko bizitzaren parte bizi bat izan daiteke. Egunerokoak, orduan, errutina den horretatik ibiliz laguntzen digu hori bera uzten. Beste ikuspegi batetik, egunerokotasun hori bera da itxaropenaren eremua, segurtasuna gainditzeko gai garelako, eraldatuko gaituena topatzeko prest, ezinezkoa errealitatera ekarriz".

Zentzu berean, Ernst BLOCH (1977:250): "Amets oro amets da oraindik ez delako apenas lortu edo bukatu. Horregatik, ametsek ez dute ahazten zer falta den eta gauza guztietan atea zabalik uzten dute. Ate hori gutxienez erdi-zabalik dagoenean, objektu oparoetarako ireki daitekeela dirudienean, horri deitzen zaio itxaropena.

Itxaropena desesperazioaren bihotzean bertan berpiztu da. Itxaropena ez da ilusioaren sinonimo. Benetako itxaropenak badaki ez dela ziurtasuna, baizik eta, Machado poetak esan zuen bezala, bidea ibiliz egiten dela; badaki metamorfosiaren bidezko salbazioa, nekez gertatzekoa bada ere, ez dela ezinezkoa. Posible

denaren segurtasunetik ezinezkoetara garamatza, egunerokoa eta gizarte-kultiboak hautsi gabe.

Itxaropena lantzeko, honako kontzeptu eta bizipen hauek hartu behar ditugu kontuan: itxaropena *versus* itxaropen pasiboa eta sakrifiziozkoa; larritasunaren, desesperazioaren eta itxaropen gabeziaren kontrako kontzeptua da; amets egitera gonbidatzen gaitu eta ustekabekoaren eta ezinezkoaren agerpenerantz askatasunez irekitzera.

Bibliografia

Marc AUGÉ (1998) Los no Lugares. Gedisa. Bartzelona.

Franco BERARDI «Bifo» (2003) La fábrica de la infelicidad. Traficantes de Sueños. Madril.

Ernst BLOCH (1977) El principio esperanza, Tomo 1. Ed. Aguilar. Madril.

Leonardo BOFF (2002) El cuidado esencial. Ed. Trotta. Madril.

Javier ENCINA eta M. Ángeles ÁVILA (2014) El desempoderamiento. Viviendo la construcción de un nuevo mundo sin poder. Edita UNILCO-espacio nómada. Sevilla.

Javier ENCINA, Beatriz LUQUE eta Mª Ángeles ÁVILA (2009) *La comunicación en los procesos de participación. De las mediaciones consentidas a las mediaciones deseadas.* Javier ENCINA eta beste (koord.) Comunicación popular o comunicación alternativa. ¿Un falso dilema?. Atrapasueños. Sevilla.

Michel FOUCAULT (1988) Cómo se ejerce el Poder. http://bit.ly/1UumaqQ

------ (1992) Microfísica de poder. Ediciones Endymión. Madril.

G. W. F. HEGEL (1993) Fundamentos de la filosofía del derecho. Libertarias Prodhufi. Madril.

John HOLLOWAY (2001) *Doce tesis sobre el anti-poder*. Toni NEGRI eta beste, Contrapoder. Una introducción. Ed. De Mano en Mano. Buenos Aires.

Ivan ILLICH (2006) La convivencialidad. Obras Reunidas Tomo 1. Ed. Fondo de Cultura Económica. Mexiko.

Edgar MORIN (2001) Los sietes saberes necesarios para la educación del futuro. Ed. Paidós. Bartzelona.

------ (2011) La Vía para el Futuro de la Humanidad. Ed. Paidós. Bartzelona.

Clara MURGUIALDAY, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO eta Marlen EIZAGUIRRE (2000) *Empoderamiento*. Karlos PÉREZ DE ARMIÑO, Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo. Icaria/Hegoa. Bilbo.

Toni NEGRI (2001) *Contrapoder*. Toni NEGRI eta beste, Contrapoder. Una introducción. Ed. De Mano en Mano. Buenos Aires.

Paul RICOEUR (1968) Entretiens Paul Ricoeur-Gabriel Marcel. Ed. Aubier-Montaigne. Paris.

Gabriela SIERRA (2010) *La vida cotidiana: libertad, amor y esperanza*. Centro de documentación sobre educación (enero). Guadalajara. Mexiko.

Carlos TAIBO (2009) *Doce preguntas sobre el decrecimiento*. Libre Pensamiento, 61 (udaberria). CGT. Madril.

Tomás Rodríguez VILLASANTE (1998) Del desarrollo local a las redes para mejor vivir. Ed. Lumen. Buenos Aires.

Raúl ZIBECHI (2007) Dispersar el poder. Virus editorial. Bartzelona.